

EZBEHARREAN ZORION

“TXOF” entzun zuen Julen Murgiondok atzerako mar-
txari eman zionean. Hots siku eta apal bat izan zen,
ez ozentasunik ez oihartzunik gabea, eta CDan ipinita
zeukan Su Ta Gar-en musikarekin ohartu ere ez zen
egingo, gurpilek jauzitxo bat egin ez balute. Zerbait
zapaldu zuela pentsatu zuen berehala, eta zerbait hori
arrautzak izan zitezkeela bururatu zitzaion zergatik ez
zekiela, konponbiderik gabeko zer edo zer apurtuko
zuen beldurrez, beharbada.

Atzerako ispilutik jendea ikusi zuen, altxa eta ma-
kurtu, lurrera begiratu, lurretik zerbait jaso, Munch-en
koadroko oihulariaren itxuraz. CDa itzali zuen eta Su
Ta Gar-en garrasiei harmonia zerutiarra iritzi zien, bat-
-batean aditu zituen ulu eta alarauen aldean.

Motorra gelditu, atea zabaldu eta lurpeko parkinera
atera bezain laster, emakume bat ikusi zuen Julenek
beregana zetorrena erotu beharrean, ostikoz jo, ileeta-
tik heldu, arramazka egin nahirik, eta Julenek, haren
garrasien artean ezer ulertzen ez bazuen ere, berarentzat

infernua hasi besterik ez zela egin konprenitu zuen, nolabait ere.

HAMAZORTZI hilabete geroago kartzelatik atera denean Julen Murgiondok ez du inor bere zain. Gurasoei bakarrik abisatu zien noiz zen ateratzekoa, baina kartzela atarian ez itxaroteko esan zien, kazetariren bat ere egongo zen beldurrez.

Ez dago kazetaririk. Hobe. Badirudi bere kasua ere, egunkarietako hainbat orri eta uhinetako hainbat minutu bete ondoren, modatik pasatu dela, jendeak ahaztu egin duela, guztia ahazten den bezala. Baina Julenek badaki berak ez, berak ezingo duela ahaztu. Ez horren erraz behintzat.

Sakelak haztatuta diru pixar bat duela ohartu da, badauka taxi bati deitzea, baina ohiturarik ez. Kirol poltsa besagainean hartu eta espetxetik hurbil den tren-geltokira jo du, handik gurasoenera joateko. Bertan eman du eguna, baita otorduak egin ere, etxeko solasgai betikoetan kulunkatua. Arrebarekin ere hitz egin du telefonoz: umeekin burutu ezinik dabilela, baina laster topatuko dutela elkarrekin egoteko parada, noski. Egun lasaia izan da, baina gauean bere etxera joan nahi duela esan du Julenek.

–Geratu hadi etxean –esan dio amak–. Hire koartoa pronto daukak.

Halako samurtasun heze bat piztu dio amaren eskaintzak, baina malenkoniaren sare gozoetan katiga-

turik geratzeko arriskua dakar horrek, eta oroiminaren eskutik etor litekeen autoerrukia.

–Eskerrik asko, baina hobe dut neure lehengo bizi-modura itzuli.

–Ba al daukak nola joan?

Aitaren galderak ohartarazi du bere mugikortasun mugatuaz. Bere Poloa, bigarren eskukoa izan arren, bahu hitu egin zion epaitegiak, kalte-ordain gisa.

–Nire kotxe zaharrean moldatzen bahaiz...

–Bueltatuko dizut bihar.

–Ez, motel. Nik ez diat ia inoiz erabiltzen eta hik probetxu gehiago aterako diok.

Aitaren Citroen zaharrean egin ditu eskualde-burutik herrixkarainoko dozena erdi kilometroak, gurasoen oraingo pisu modernotik familiaren bizileku izandakora, hantxe bizi baita Julen, eta eskerrak etxeak gurasoen izenean jarraitzen duen, bestela hori ere enbargatu egingo zioten.

Gurasoen solasa, aitaren autoa, familiaren etxea izandakoa... oroitzapenak trumilka datozkio Juleni, nahi ezta ere; musika jarri du etxeko CD gailuan eta aurikularrak ipini ostean bolumena igo, horrekin eta hozkailu itzalian topatu duen garagardo epelarekin burua apur bat sorgortzeko eta gorputza beste apur bat sosegatzeko, lotara joan baino lehen.

BIHARAMUNEAN, egitekoren bat behar duela-eta, etxea garbitzeari ekin dio. Lehenago ere ez zen inoiz zoko garbitzen gehiegi tematzen, eta premia galanta dagoela

ikusi du. Goiz osoa eta arratsaldearen parte bat eman ditu zeregin horretan, noizean behin geldialdiak eginez, ordu oroko albistegia entzuteko irratian edo zerbeza-lata bat edateko, hozkailuan freskaturik oraingoa.

Halako batean, arropa-denda bateko poltsa bat topatu du, eta barruan pakete bat oraindik zabaldu gabea. Larunbat arratsalde hartan egindako erosketa dela oititzen da, eta ireki egin du. Calvin Klein markako boxer bat dago barruan, horretaz ere oititzen zen, baina arrotza egiten zaio hura erosi zueneko unea, orduko bere kezkek eta itxaropideak, hura erostean buruan zeuzkan neskak ere guztiz urrunak iruditzen zaizkion bezala.

Boxer beltzari alde guztietatik begira gelditu da. Etiketa gertatu zaio harrigarria: Made in Israel. Konturatu izan balitz ez zuela erosiko pasatu zaio burutik, baina sinonismoaren kontrako boikota ere iraganeko kontu erdi ahantzia begitantzen zaio orain. Galtzontziloen kaxoian gorde eta garbiketarekin jarraitu du.

ARRATSALDE erdian lanak amaitutzat eman dituenean gosetuta eta leher eginda dago, baina aspaldiko partez zer edo zer probetxuzkoa egin izanaren sentipen atseginak blaitua. Dutzatu egin da lehenik, egun osoan zikinkeria artean ibili ostean bazuen premia, eta arropa garbia jantzi du gero.

Mokadu bat jateko gogoia du. Mokadu bat baino gehiago, idia jango luke adar eta guzti. Etxean atun lateren bat besterik ez duela izango egin du bere baitan, eta ogirik gabe jan behar luke gainera. Hobe kanpora ate-

ratzea. Herrikoan egiten zituzten xolomo-bokadilloekin akordatu da, piper eta guzti; hori eta ardo on bat ederki sartuko litzazkioke oraintxe; baina, pentsatu du aldi berean, animorik ez lagun zaharren animoak eta galderak eta eupadak eta berriketa jasateko. Zer egin? Beste herri batera joan eta taberna ezezagun batean sartu?

Zer egin pentsatzen ari dela, ateko txirrinak jo du. Nor ote den gogoetan geratu da une batez Julen. Herriko lagunak, bizilagunak, kamaradak pasatu zaizkio gogotik. Ez du inor ikusteko gogorik baina ez dauka zertan ihesi ibili ere, eta atera jo du, zabaltzera.

Lurreko zurari iltzez josia bezala geratu da ireki duenean. Ireki, eta parean nor duen ikusi duenean. Hamaita aldiz ikusi du telebista eta paperetan, epaiketan ere kokotean sumatzen zuen uneoro haren hatsa, baina ez du aurrez aurre eduki parkineko arratsalde zoritxarrekoaz geroztik, eta ia-ia irrealia iruditzen zaio haren presentzia.

Une luze bat eman dute horrela, elkarren parean, ahorik zabaldu gabe, zer esan ez balekitez edo lehenengo hitza besteak esatea espero balute bezala biek ala biek. Azkenean, deitzailea bestea den arren, jendetasunez ez bada deserosotasunez egoera hura trenkatu nahian, Julenek hitz egin du:

–Sartu... sartu, nahi baduzu...

Hitzik gabe sartu da emakumea Julenen etxe barrura, begirada, nahi gabe ere, sarrera eta korridoreko pareta biluziei emana. Julenen begiak, berriz, emakumearen eskura doaz, nahi gabe, eta handik apartatzeko agindu behar dio etengabe bere buruari.

Esku ezkerra atrofiatua du emakumeak; eskua bakarrik ez, besoa erkindua du ukondotik behera, abarihar baten gisan; ukondotik behera zuzenean, eskumuturrik gabe, piztia baten atzaparraren antzekoa aterako balitzaio bezala, muturrean bizpahiru hatz itxuragabe dituen, falangerik eta azazkalik gabeko luzakin moduko batzuk, kolorez arroxak eta ilerik gabeak. Beste zerbaitetan pentsatu beharko lukeela diotso Julenek bere buruari, baina ezin, halakoxea baita higuinarekin batera besamotx horren ikusteak eragiten dion sorgintzea, lilura iluna.

Bien bitartean, sukaldera iritsi eta mahaiaren jiran eseri dira, hitzik egin gabe, Julen aurretik eta emakumea atzetik, errutinazko keinuak errepikatzen ariko balira bezala, nahiz bientzat ere egoera berri eta deserosoa izan. Aurrez aurre eserita, mahaia erdian dutela, ahorik zabaldu gabe jarraitzen du emakumeak, lepoaren eta begien mugimenduetan nabari zaion arren urduritasuna, zerbait esan nahi eta esan ezina. Zain dago Julen, artega bera ere, begiak non pausatu ez dakiela.

–Etxea hutsik daukat oraindik –esan du azkenean–. Ezer hartzekotan kafea daukat eskaintzeko. Nahi duzu kafe pixka bat?

Emakumeak baietz egin du buruarekin. Zerbait egin ahal izateak lasaitu ez baina tentsioa kendu dio bederen Juleni. Makina piztu, kafea atera, kikarak, azukrea...

–Esnerik ez daukat.

Mila modutan interpreta litekeen keinua egin du emakumeak: ez zaiola inporta, moldatuko dela, ez duela esnerik nahi...

Kikara biak mahaira ateratzearekin batera gogoratu da Julen galletaren batzuk ere izan behar dituela non edo han. Altxatu eta haien bila joan da. Platertxo batean zabaldu eta platera mahai gainean ipini du gero, bien erdian.

–Bigunak daude –esan du Julenek, galletetako bat probatu bezain laster. Emakumeak keinu sumagaitz bat egin du–. Badakizu, denbora...

Hortik aurrera, isiltasuna berriro. Bata bere gogotetan baitaratua, edo bere ezinegonen kontzentratua, edo bere oskoletik nola irten asmatu ezinik; eta bestea, berriz, bataren pentsamenduei igarri nahirik, eta bere barneko katramilak baretzeko ahaleginean. Esku motxa ezkututan lagata, eskuinekoa darabil emakumeak kafe-kikarari heltzeko, koilaratxoari eragiteko, galleta bat hartzeko, eta Julenek eskertu egin dio bere artean deformazio hura bistatik kendu izana.

Denbora igaro eta bi eskuak altzoan gorde ditu emakumeak, mahaiepean. Kikarak aspaldi geratu dira mahai gainean hutsik.

–Kafe gehiago nahi? –galdetu du Julenek handik puska batera.

Emakumearen keinu herabea ezezkotzat interpreta-tu du oraingoan gizonak. Beste denbora tarte bat igaro da, ez hitzik ez mugimendurik gabe, eta halako batean zutitu egin da andrea. Altxatu egin da Julen ere, bisita-ren arrazoia ezagutuko duelakoan azkenean, baina, horren partez, jira egin eta sukaldetik irten da emakumea, aterako bidean.

Atzetik segitu dio Julenek, atea behinik zabaldu beharko diolakoan. Andrea aurretik doa, ordea, eta korridorea estuegia da inori aurea hartzeko; emakumea iritsi da lehenik sarrerara, ireki du atea, baina ez du aldegin, hortxe geratu da une batez, despeditzeko bezala. Jira erdia egin eta Juleni begira geratu da. Julen ere geldi, andreak zer esango edo zer egingo duen zain.

Tartetxo batean egon dira horrela; une batez iduri du andrea zerbait esatera doala, behingoz, baina ez: azkenean berriro jiratu eta kanpora joan da emakumea, bitarte guztian hitzik ere esan gabe.

Emakumea etxean sartu zaionetik berriz aldegin arte zenbat denbora igaro den kalkulatzen saiatu da Julen: ordu erdi bat izango dela egin du bere artean, baina ordutan tentsioan egon izanaren sentipena eragin diola, egun osoko lan astunak baino abailduago utzi duela kafe-ordu isil horrek.

Inora ateratzeko planak bertan behera utzi eta ohera jo du, aurikularrekiko irrati txikiaren burrunba atergabearen laguntzaz logalea ere laster etorriko zaion esperantzan.

BIHARAMUNEAN paperak gora, paperak behera ibili da Julen: Inem-eko bulegoan langabezia-saria kobratzeko, telefono finkoa zein mugikorra berriz ere martxan jartzeko eta beste hainbat kontutarako buruzpideak egiten eman du goiz osoa; eskualdeko Eroskin erosketak egi-teko ere aprobeztatu du gero: janaria, garbiketa-gaiak